

2020KO BAGILAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2020eko bagilaren 25ean, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EHBildu)

Zinegotziak:

-

- MIREN GARBIÑE OLEALDEKOA ORBE andrea(EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- IRATI ABIO MURUAGA andrea(EH Bildu)
- MARIA BEGOÑA ABIO ZAPIRAIN andrea (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- GUILLERMO MARTÍN MARTÍN jauna (EAJ-PNV)
- GORKA URIARTE URAZURRUTIA jauna (EAJ-PNV)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI)
- JAVIER MIGUEL ALVARADO jauna (BAKIOBAI)

Zinegotzi hau ez da bertaratu: MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu).

Helburua: Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikeraemoteko legezko “quorum”adagoala egiaztatu orduko, alkate andrearen lehendakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2020KO MAIATZAREN 28AN EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2020ko maiatzaren 25ean egindako ohiko udalbatzaren akta. Zinegotziak adierazo dau aktan, dagoeneko, egin dirala Begoña Abio zinegotziak aitatutako zuzenketak. Ostean, alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotzietatik akta hori aho batez onartu dabe.

2.-. 2020KO BAGILAREN 16AN EGINDAKO APARTEKO BILKURAREN AKTA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdujake zinegotziei 2020ko bagilaren 16an egindako aparteko udalbatzaren akta, eta alkate andreak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

3.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.

Gai honeri hasikerea emoteko, idazkariak honako dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

153/2020.- Hari elkarteari emondako baimena.

154/2020.- Aurrekontu kredituen aldarazpena.

155/2020.- Nominak ordaintzeko ebazpena.

156/2020.- Obligazioen ordainketa onartzea.

157/2020.- Papera eta kartoia batzeko kontratu txikia.

158/2020.- Obligazioen ordainketa onartzea.

159/2020.-. Hondartzaren erabilera dinamikoa

160/2020.-.Udaltzaingoaren behin-behineko zerrenda

161/2020.- Kontratu txiki baten esleipena.

162/2020.- Kontratu txiki baten esleipena.

163/2020.- Kontratu txiki baten esleipena.

164/2020.- Izangai bat udaltzaingoaren lan poltsan sartzea.

165/2020.- Biscaytik Fundazioagaz jasotako hitzarmena onestea.

166/2020.- Jarduera-lizentzia baten eskualdaketa.

167/2020.- Probalekua erabilteko baimena.

168/2020.- Enpresei eta autonomoei laguntzeko oinarriak.

169/2020.- Udaltzaingoaren behin betiko lan poltsa.

170/2020.- Itzulketa baten onespena.

171/2020.- Obligazioen ordainketa onartzea.

172/2020.- Administrarien behin-behineko lan-poltsa.

173/2020.- Desjabetze bat bideratzeko ebazpena.

174/2020.- Obrak egiteko luzapena.

175/2020.- Udal ekipamenduak erabilteko protokoloa.

176/2020.- Kontratu txiki baten esleipena.

177/2020.- Zirkulazino protokoloa eta terrazak zabaltzeko ebazpena.

178/2020.- Ibarreta erabilteko baimena.

179/2020.- Kontratu txiki baten esleipena.

180/2020.- Bakioko hondartzan surf-eskolak emateko lizentzia luzatzea.

181/2020.- Bakioko hondartzan surf-eskolak emateko lizentzia luzatzea.

182/2020.- Bakioko hondartzan surf-eskolak emateko lizentzia luzatzea.

183/2020.- Obligazioen ordainketa onartzea.

184/2020.- Udalaren titularitateko instalazinoei energia elektrikoaren hornidurari buruzko 2020ko maiatzaren 20ko balorazio-txostena onartzea.

Jarraian, alkate andreak ondoko dekretuei buruzko azalpenak emon dauz:

161/2020 .- Kontratu txikia: Bentako autokarabanen aparkalekuan bide-seinaleak pintatzea, baita udalerriko hainbat gunetan ere Covid19aren ondorioz urruntzeko premiekin bat datozen oinezkoen igarobideak gaitzeko. Lan hori Seinalizaciones Eder SA enpresari esleitu jako, 6.957,50 euroko guztizko prezioan.

162/2020.- Kontratu txikia: Bentako aparkalekura autokarabanak etortzen direnez, beharrezkotzat jotzen da turismoentzako aparkaleku-eremu bat gordetzea; beraz, galibozko arkupeak jarriko dira, autokarabanak eremu horretara sar ez daitezen. Lan hori MANSEVI enpresari esleitu jako 5.142,50 euroren (BEZ barne) truke.

163/2020.- Kontratu txikia: COVID-19k sortu duen oinezkoen zirkulazioan pertsonen arteko distantzia fisikoa mantendu behar dan ezkeru, udalerriko hainbat tokitan oinezkoen zirkulazinarako aparkalekuak jartea aurreikusi da. Horretarako, beharrezkoa da gune horreek

seinale bertikalekin seinaleztatzea. Lan hori Ceprenor enpresari esleitu jako, 4.991,91 euroan, BEZa barruan.

168/2020.- Enpresei eta autonomoei laguntzeko oinarriak Bakioko Udalbatzak 2020ko maiatzaren 28an onartu ebazan arren, dekretu horren bidez deialdía egin da, interesatuek agiriak aurkezteko.

175/2020.- Udal ekipamenduak erabilteko protokoloa. Hauxe erabagi da:

BAT.- Udalaren aurretiazko baimenarekin, herriko elkarte eta herritarrek, beraien hezkuntza edota kultura jarduerak aurrera eraman ahal izateko, udalaren lokal eta instalazioak erabili ahalko dituzte.

BI.- Lokala erabili ahal izateko protokolo hau jarraitu beharko da:

1.- Lokalak

Sarbide baimendua duten eremu eta lokal bakoitzeko **gehieneko edukiera**, horiek erabiltzen dituzten pertsonen artean **2 metroko segurtasun-distantzia mantentzea ahalbidetuko duena izango da.**

Bainugela eta komunak banan-banan erabiliko dira, konketaren eremu komunak partekatzea saihestuz, eta itxaronaldian pertsonen arteko distantziari eutsiz.

Lokalen aireztapen naturala areagotuko da, barruan airea berritzen laguntzeko.

Pertsona ugari elkartzea dakarten jarduerak egiteko zonak erabiltzea saihestuko da; beraz, horiek erabiltzea debekatzen da, baldin eta distantzia sozialari eusteko aukerarik ez badago.

2.- Ekipamendua eta higieena

Lokaleko gela bakoitzak eskuak garbitzeko eta desinfektatzeko gel hidroalkoholikoa izango du, bai eta erabili eta botatzeko materiala (paperezko zapiak) ere

Material bereziak erabiliko dira. Musika tresnak, telefonoak, boligrafoak eta gainerako elementuak partekatzea ere saihestuko da, edo, partekatu behar izanez gero, garbiketa eta desinfekzio sakona ziurtatuko da

Beharrezko materiala eskuragarri dagoela ziurtatuko da, hala nola erabili eta botatzeko zapiak, maskarak, eskularruak, garbitzeko eta desinfektatzeko materiala eta produktuak, soluzio hidroalkoholikoak, etab.

Talde guztiek maskarak izango dituzte kideentzat edota partaideentzat. **Bakoitzak bere maskara eraman beharko du**, baina, nolana ere, **elkarreak edo taldeak maskara bat bermatuko die** hainbat arrazoiengatik maskararik ez duten kideei.

3.- Banakako prebentzio-neurriak

Arnas-sintomak edo sukarra dituzten kideek edo gaixo sintomatiko batekin harreman estua izan dutenek, **etxean geratu beharko dute.**

Arau nagusi gisa, uneoro mantendu beharko da **pertsonen arteko 2 metroko segurtasun-distantzia**. Nolanahi ere, gerta daitezkeen egoeretan zein espazio batetik bestera igarotzerakoan egon daitekeen aniztasuna kontuan hartuta, **kide guztiei adierazten zaie higieena-maskarak erabiliko direla lokaletako espazio guztietan.**

Pertsona guztiek higieena pertsonaleko neurri zorrotzak hartu beharko dituzte; beraz, honako neurriak hartzeko esango zaie:

a.- Eskuak maiz garbitzea urarekin eta xaboiarekin edo soluzio hidroalkoholikoekin. Horretarako, lokaletan gel hidroalkoholizko gailuak izango dira sarreran. Eskuak behar bezala garbitzeko, komeni da azazkalak motz izatea eta eraztun eta eskumuturrekorik ez erabiltzea.

b.- Saihestu begiak, sudurra eta ahoa ukitzea.

c.- Eztul edo doministiku egitean, ondo estali ahoa eta sudurra ukondoa tolestuta edo paperezko zapi batekin, arnas jariakinei eusteko; ondoren bota berehala zapi hori paperontzi edo edukiontzi espezifiko batera.”

HIRU.- Protokoloa betetzen ez bada, udal lokala erabiltzeko eskubidea automatikoki galtzea suposatuko du, ez betetze horrek ekarri dezakeen bestelako lege ondorioak aparte.

176/2020.- Kontratu txiki baten esleipena: COVID-19k sortutako egoeragatik, beharrezkoa da hondartzako komunen garbiketa-orduak handitzea.

Gaur egun, komunen garbiketa-maiztasuna egunean ordubetekoa da, larunbat, igande eta jaiegunak barne; gehikuntza egunean hiru ordukoa izango da, hau da, egunean ordubeteko 4 garbiketa egingo dira. Igoera 2020ko hondartza-denboraldian egingo litzateke, hau da, 2020ko ekainaren 15etik 2020ko irailaren 30era arte. Inguruabarrak ez badira aldatzen Lan hori CLYMAGRUP, JCT, SL enpresari esleitu jako, **49.301,21** euroan, BEZa barruan.

177/2020.- Zirkulazino protokoloa eta terrazak zabaltzeko ebazpena. Oso osorik azaldu da

174/2020 dekretuan Feliena etxaldearen itxidura egiteko lizentziaren luzapena erabagiten dala eta, Begoña Abio zinegotziak galdetu dau itxidura hori ia eraikinena dan bakarrik edo finka guztiena, ze jendea sartzeko arriskua dago-eta.

Idazkariak dino itxidurak etxearen alboko lursaila be hartzen dauala.

Alkate andreak dino etxaldea egoera abandonatuan dagoela, belarrak eta zuhaitzen adarrak moztu barik egokeran, eta inguruan bizi diren jendearen kexak jaso dirala. Eta horregaitik Felienaren jaubeari jakinarazo jako egoera hori esanez mantentze beharrak egin behar dauzala.

4.- AUTOKARABANEN GUNEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA HASIKERA BATEAN ONARTU.

Ametz Jauregizar ordenantzaren ganean azalpenak emon dauz:

Bentako eremuan autokarabanak erruz aparkatzen dira, eta herritarren parte hartzearen ondorioz eta informazino batzordean eztabaidatu zan modura, ikusi zan Bentan autokarabanak aparkatzeko lur-esparru zehatza arautu beharra dagoala.

Horrenbestez, ordenantzea idatzi da eta bertan zehazten aparkalekuan jasoten dan zerbirzuagaitiko ordaindu beharreko prezio publikoak, izan be, horretarako txosten ekonomikoa landu da.

Begoña Abio, dino ados dagoala Ordenantzeagaz, baina autokaranabak aparkatzeko hautatu dana barik beste eremu bat hautatu behar zala, ze onartu gura dana aproposa da hondartzara joateko etorriko dan jendearentzat eta bertan inguruan bizi diranentzat. Dino be, onartu gura dan kokapena behin-behinekoa izan behar dala eta beste lekuren bat bilatu zerbitzu hori emoteko. Ganera, ordenantzea onartzeko orduan berandu gabiltza, ze igazko irailean hasi ginen honetaz berbetan, eta ez jaku ondo iruditzen hainbeste denbora igaro izana ordenantzea onartu barik, ze uda honetan ezin izango da sartu indarrean, eta, beraz, inbertsinoa errentagarri bihurtu-

Alkate andreak hauxe erantzun deutso:

Autokarabanaren behin betiko kokapena herriko urigitzako ordenazinoaren plangintza orokorrean zehaztu beharko da.

Ordenantza onartzeko orduan berandu gabiltzala esatea, uste dot pertzepzio subjektiboa dala. Ganera, faltan igarten dogu EAJ taldeak ez proposatzea ordenantza bat informazino batzordean igazko azaroan eztabaidatzen hasi zanetik, ze errazagoa da udal gobernuak ordenantzea egiten dauanean kritika egitea, berau konstruktiboa izan arren.

Begoña Abioren eta Amets Jauregizarren artean gaiari buruzko eztabaida laburra izan dabe.

Zinegotziak espedientean jasoten dan aldarazpenaren edukinaren jakitun diran ezkerro, eta informazino batzordean gaia landu dala kontuan hartuz be, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez — korporazinoa legez osotzen daben 11tik 10rek — erabagi hau hartu dau:

Bakioko Benta autokarabanen eremuan autokarabanak eta etxebizitza-ibilgailuak aparkatzeagatik eta gaua pasatzeagatik prezio publikoak ezartzea ri eta horiek arautzen dituen ordenantzari

1.- Bakioko Benta autokarabanen eremuan autokarabanak eta etxebizitza-ibilgailuak aparkatzeagatik eta gaua pasatzeagatik prezio publikoak ezartzeari eta horreek arautzen dauzan ordenantzari hasikerako onespena emotea, espedientean ageri dan modura.

2.- Espedientea 30 egun balioduneko epean jendaurrean ipintea. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko web gunean eta herriko taulan argitaratuko da beharrezko iragarkia. Epe horretan erreklamazinorik egon ezik, erabagia behin betikotzat hartuko da. Ordenantzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratu eta biharamunean indarrean sartuko da.

5.- 2020KO UDAL AURREKONTUARI BURUZKO ALEGAZINOAK EBATZI, ETA, HALA BEHAR BALITZ, AURREKONTU HORI BEHIN BETIKO ONARTU.

Atoan, udal idazkariak, hauxe adierazo dau:

Udalbatzak, 2020ko zezeilaren 27an egindako bilera, 2020ko udal aurrekontuak hasikera baten onartu eban. Horren ostean, aurrekontua jendaurrean ipini zan, horretarako, iragarkiak ipini ziran 2020.03.10eko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, herriko taulan eta berriko web. gunean.

Martiaren 14ko Estaduko Aldizkari Ofizialean, mariaren 14ko 463/2020ko Errege Dekretua (Covid-19k sortutako osasun larrialdi egoerea kudeatzeko alarma-egoerea ebazten dau) argitaratu eta egun berean indarrean sartu zan. Arautegi horretan, azaltzen zan epe administratiboak egun horretatik aurrera etenda geratzen direla.

Handik eta egun gitxira, hau da, martian, aldizkari juridiko baten azaltzen zan 463/2020ko Errege Dekretuaren ondorioz, udal aurrekontua onartzeko jardunbidean ipinita dagozan legezko epeak geratzen zirala.

Aldizkari juridiko berak, apirilean, beste informazino bat argitaratu eban, esanez 463/2020ko Errege Dekretuan azaldutako epe administratiboen etendura ez zala aplikagarria udal aurrekontuak onartzeko behar diran epe administratiboei. Hori dala-eta maiatzean BAOr iragarkia bialdu zan esanez 2020ko udal aurrekontua, barriro, jendaurrean dagoala 12 egun baliodunez (martian 3 egun egon zan jendaurrean). Iragarkia BAOren 2020ko bagilaren 1ean argitaratu zan, bai eta udaleko web orrian eta herriko taulan be.

Bien bitartean, Begoña Abio EAJ-PNV taldearen bozeroaleak udaletxean idatzia aurkeztu eban, eta bertan azaltzen zan 2020ko udal aurrekontuaren atal batzuetan akatsak egoazala.

Azken hori dela eta, akats horreek aholkulari ekonomikoa aztertu eta ondorioztatu zan akats materialak zirala, hau da, zuzendu beharrekoak, baina 2020 udal aurrekontuari funtsean inondik inora be eragiten ez deutesnak.

Horrenbestez, akats ekonomiko horreek zuzentzeko 2020.05.20ko txostena idatzi zan, eta Udalbatzak 2020ko maiatzaren 28an 2020ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorrean antzemandako akats materialen zuzenketa onartu eban.

Azkenik, Xabier Goitia Garay jaunak, 2020 bagilaren 9an (sarrera erregistroa 1142.a), aurrekontuaren aurka alegazinoak aurkeztu dauz, eta zinegotziek dagoeneko badaukie horren barri..

Udaleko aholkulari ekonomikoak eta idazkari-kontuhartzaileak 2020.05.12ko txostena egin dabe, eta bertan erreklamazinoari buruzko erantzuna era honetara azaltzen da:

1.- La parte reclamante señala en el primer párrafo de su escrito que el documento contenía diversos errores que el mismo Pleno tuvo que subsanar en base al informe del Secretario-Interventor. La rectificación de errores en los actos administrativos se regula en el artículo 109 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. La Administración debe rectificar los errores manifiestos y acreditados que contengan sus actos. Debe tratarse de errores de hecho o aritméticos, para cuya apreciación no se requiera aplicar criterios de interpretación o valoración de las normas jurídicas aplicables, pueden rectificarse en cualquier momento, de oficio o a instancia de los interesados. El informe del Secretario-Interventor calificaba los errores como materiales y proponía su corrección por el mismo órgano que dicto el acuerdo. Por lo tanto, el procedimiento seguido es el correcto.

2.- En el segundo párrafo no está claro lo que el interesado pretende manifestar sobre tres documentos que califica como esenciales. Textualmente dice “no forman parte del Presupuesto del año 2020 aunque físicamente si están en el expediente” o están o no están. En cualquier caso, los tres documentos que cita, “Resumen por capítulos”, “Anexo de Regla del Gasto” y Anexo de Estabilidad Presupuestaria” forman parte del expediente, páginas 14,31 y 32.

3.- En el tercer párrafo del escrito dice que el 2 de junio el expediente continuaba con la misma documentación deficiente y que el plazo de exposición pública no puede comenzar hasta que la información no sea la correcta. Sin embargo él mismo en su escrito reconoce la existencia del informe y del acuerdo de subsanación de errores. El expediente contiene el documento original (como no puede ser de otra manera) con los errores y el acuerdo de subsanación de errores. En definitiva, la documentación que obra en el expediente es la original y la correcta y en ningún caso “inexacta” como se dice en el escrito.

Señala también en este mismo párrafo que los gastos del capítulo 6 de la liquidación del Presupuesto de 2018 no están desglosados impidiendo comprobar si corresponden o no a lo efectivamente materializado, que hay un porcentaje totalmente anómalo (768,25%) y por último que aparecen conceptos indeterminados, tales como “Dirulaguntak” o “parte hartzea”. En cuanto a la primera manifestación, lo que está en tramitación es el expediente de aprobación del Presupuesto del ejercicio 2020. La comprobación de si lo ejecutado en el 2018 se corresponde con lo presupuestado, pudo y debió hacerse en el trámite de la exposición pública de la Cuenta General del ejercicio 2018. En cuanto al porcentaje, refleja la variación entre lo presupuestado inicialmente en el Presupuesto del 2019 y 2020 y es correcto. Por último, en cuanto a lo que denomina conceptos indeterminados, son denominaciones de partidas que tienen su explicación en la Memoria de Alcaldía, páginas 7 y 9.

4.- En el cuarto párrafo que a su vez subdivide en seis, el interesado, como hizo en su alegación al Presupuesto del ejercicio 2019, señala una serie de actuaciones urbanísticas que califica como obligatorias, añade comentarios personales y solicita se le acrediten determinados ingresos. Continúa luego con una serie de consideraciones sobre el contrato del polideportivo municipal y termina señalando diversos puntos en los que entiende que la vialidad del municipio presenta situaciones de peligro. Nada de esto tiene que ver con los motivos tasados por los que se puede recurrir el Presupuesto. Hemos de reiterarnos, en lo manifestado ya en el año anterior. La Norma Foral 10/2003, en su artículo 17.2.b, establece que las obligaciones deben ser exigibles a la entidad, en virtud de un precepto legal o de cualquier otro título legítimo. El legislador se refiere a obligaciones que presupuestariamente estén en fase de reconocimiento de la obligación (ADO) o a contratos o compromisos legalmente asumidos con un tercero y que el Presupuesto inicialmente aprobado omita el crédito necesario para su cumplimiento. Las actuaciones urbanísticas a que hace referencia el interesado no se encuentran en esta situación y menos sus consideraciones sobre el contrato del polideportivo o la situación de la vialidad del municipio. En cualquier caso precisarle, aunque nada tenga que ver con este expediente de aprobación del Presupuesto de 2020, que el Convenio Urbanístico del Plan Parcial de Solozarre, en sus estipulaciones Primera y Segunda, fija los momentos en los que se deben materializar los ingresos y cuando el Ayuntamiento ha de ejecutar las obras de urbanización. En virtud de ello, el Ayuntamiento, con fecha 28 de noviembre de 2018, recibió el primer pago de 15.000€, que figura contabilizado en la aplicación presupuestaria “2018 65001 Cargas urbanísticas Solozarre” y cuyo destino, como ingreso finalista, será la ejecución de las obras de la urbanización.

5.- Termina su escrito con una serie de consideraciones sobre los ingresos. Dice que los ingresos que figuran en el expediente no son reales como consecuencia del Covid-19 y para sustentar su afirmación, hace referencia a una comparecencia del pasado día 21 de mayo de La responsable foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales. El proceso de formación del expediente se inició en octubre de 2019, con el primer borrador elaborado con criterios exclusivamente técnicos. A este le siguieron otros tres borradores con las propuestas políticas y por último, un quinto borrador con las aportaciones del proceso de participación ciudadana que se inició el septiembre y finalizó el octubre de 2019. El estado de alarma se declara el 10 de marzo, en pleno proceso de exposición pública del expediente. Ni en ese momento, ni ahora, es posible concretar sus consecuencias económicas. Efectivamente una opción habría sido renunciar a su aprobación definitiva e iniciar de

nuevo su elaboración. Esto prácticamente no llevaría a no contar con presupuesto en este ejercicio y ejecutar el prorrogado de 2019, aún menos realista. La otra opción era finalizar la tramitación del expediente e ir tomando las decisiones que se estimen necesarias según vayan sucediendo los acontecimientos. Por esta segunda vía se ha optado, por ser más eficaz y razonable. En esta línea de ir adaptando las cuentas municipales a la nueva situación y a los acontecimientos, una primera medida será presentar al Pleno municipal un Plan Económico Financiero con una reducción de gastos cifrado en 547.000€.

A la vista de los consideraciones y razonamientos expuestos **procede la desestimación de las alegaciones** presentadas, por D Xabier Goitia Garay, con fecha 9 de junio de 2020 y registro de entrada nº1.142, por no corresponderse con los motivos tasados en el artículo 17.2 de la Norma Foral 10/20003, de 2 de diciembre, que son los siguientes:

“Únicamente podrán entablarse reclamaciones contra el Presupuesto:

- a) Por no haberse ajustado su elaboración y aprobación a los trámites establecidos en esta Norma.*
- b) Por omitir el crédito necesario para el cumplimiento de obligaciones exigibles a la entidad, en virtud de precepto legal o de cualquier otro título legítimo.*
- c) Por ser de manifiesta insuficiencia los ingresos con relación a los gastos presupuestados, o bien éstos respecto a las necesidades para las que estén previstos.”*

Begoña Abio zinegotziak EAJ-PNV taldearen izenean dino:

Ados gagoz alegazinoei buruz egin dan txostenaren edukiaz, baiian aitamena egitea beharreko ikusten dogu.

Goitiak dino aurrekontuan akats batzuk egin zirela, baina akats horreek Udalbatzak 2020ko maiatzaren 28an egin eban bileran zuzenduta egon ziran, eta, beraz, gai hori konpondu da.

Algezinogile horreek aitatzen dauzan gai batzuk interesgarritzat eta kontuan hartzekotzat jotzen doguz, gaiei urtenbidea emon barik segitzen dalako, esaterako, Ibarretako bideko obrak, Solozarre eremuko zubia, kiroldegiko eredua, ibilgaiIuen sarrera-urteera, eta abar. Beraz, alegazinoak atzera botako doguz, gure ustez gaiok ez diralako 2020ko aurrekontuaren kontrako alegazino modura hartu behar, baina balio positiboa emoten deutsalagu alegazinoetan gaiok azaltzeari.

Solozarreko urbanizazino obrak egiteko udalak jaube batzuekaz sinatura daukan hitzarmenaren arabera, jaso behar dauan 354.928,00 euro oraindik aurrekontuan ez dago zainpetuta udal aurrekontuko diru sarreretan eta gastuen orrian, eta zainpetu egin beharko dira, obrak egin gura badira.

Aitatu dogun lez, alegazinoak atzera botako doguz udal aurrekontuaren balioagaz lotura zuzenik ez izateagaitik, baina bertan azaltzen diran proposamen eta gai batzuei balio positiboa emoten deutsalagu eta kontuan izango doguz.

Alkate andreak hauxe adierazo dau:

Ados dagoala Begoñak dinonagaz, hau da, alegazioetan azaltzen diran obrak eta ekimenak gauzatu beharraz, eta udal gobernua horretan ari dala.

Solozarreko urbanizazioari jagokonez, hitzarmenaren arabera udalak 354.928,00 euro jaso behar dauz urbanizazio hori finantzatzeko. Hitzarmena sinatu zanean udalak 15.000,00 euro jaso ebazan, eta gainontzeko dirua obrak egiten hasten diranean jaso behar dauzala. Dana, dala obrak lizitatzeko ez da beharrezkoa dirua jasota egotea, nahikoa da hori jasotzeko eskubidea izatea, eta udalak eskubide hori hitzarmenaren bidez dauka bermatuta. Egin behar dana da, udal erabagiaren bidez, aurrekontuko diru sarrera eta gastuen orrietan dirua zainpetu, obrak lizitazinora atera baino lehen.

Josu Garai dino aitaturako txosteneko bigarren paragrafoan alegazioaren gaineko erantzun hau azaltzen dala : *En el segundo párrafo no está claro lo que el interesado pretende manifestar sobre tres documentos que califica como esenciales. Textualmente dice “no forman parte del Presupuesto del año 2020 aunque físicamente si están en el expediente” o están o no están. En cualquier caso, los tres documentos que cita, “Resumen por capítulos”, “Anexo de Regla del Gasto” y Anexo de Estabilidad Presupuestaria” forman parte del expediente, páginas 14,31 y 32.*

Horrek galdu dau erantzun hori ea zuzena dan.

Idazkariak adierazo deutso esanez erantzuna zuzena dala.

Beraz, tramitatutako espedientea kontuan hartuz, botoa emoteari ekin deutse, eta, ondorioz, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (korporazinoa legez osotzen daben 11tik 10rek), erabagi hau hartu dau:

LEHENIK: Xabier Goitia Garay jaunak 2020ko udal aurrekontuari buruz aurkeztutako alegazioak ez onartzea, beti be udaleko aholkulari ekonomikoak eta idazkari-kontuhartzaileak 2020.06.25eko txostena kontuan hartuz.

BIGARRENIK: 2020ko udal aurrekontu orokorra behin betiko onartzea. Izan be, gastu eta sarrera kapituluka laburtutako zenbatekoak ondorengoak dira:

	RESUMEN POR CAPITULO / LABURPENA KAPITULUKA INGRESOS / SARRERAK	
Capítulo kapitulua	Denominación Izendapena	aurrekontua 2020
1	Impuestodirectos / Zergazuzenak	1.103.189,80
2	Impuestosindirectos / Zeharkakozergak	75.000,00
3	Tasas y otrosingresos / Tasak eta bestelakosarrerak	799.764,66
4	Transferenciascorrientes / Transferentziaarruntak	2.077.553,13
5	Ingresospatrimoniales / Ondaresarrerak	326.707,30
	INGRESOS CORRIENTES / SARRERA ARRUNTAK	4.382.214,88
6	Enajenación de inversiones / Inbertsioenbesterenganatzea	0,00
7	Transferencias de capital / Kapital transferentziak	0,00
	INGRESOS DE CAPITAL / KAPITAL SARRERAK	0,00

8	Activos financieros / Aktibofinantzarioak	3.600,00
9	Pasivos financieros / Pasibofinantzarioak	0,00
	INGRESOS FINANCIEROS / FINANTZA SARRERAK	3.600,00
TOTAL / GUZTIRA		4.385.814,88
GASTOS / GASTUAK		
Capítulo kapitulua	Denominación Izendapena	aurrekontua 2020
1	Gastos de personal / Perstonalgastuak	1.435.163,10
2	Gastos corrientes y de serv. / Gastuakond. Arrunt eta zerb.	2.029.078,78
3	Gastos financieros / Gastu finantzarioak	16.000,00
4	Transferencias corrientes / Transferentzia arruntak	172.526,63
5	Crédito global y otros imprevistos / Kreditu globala eta bestelakoustekabeak	71.324,36
	GASTOS CORRIENTES / GASTU ARRUNTAK	3.724.092,86
6	Inversiones reales / Inbertsio errealak	547.000,00
7	Transferencias de capital / Kapital transferentziak	0,00
	GASTOS DE CAPITAL / KAPITAL GASTUAK	547.000,00
8	Activos financieros / Aktibofinantzarioak	0,00
9	Pasivos financieros / Pasibofinantzarioak	114.722,02
	GASTOS FINANCIEROS / FINANTZA GASTUAK	114.722,02
TOTAL / GUZTIRA		4.385.814,88

6.- 2020KO PLAN EKONOMIKO-FINANTZARIOA ONARTU.

Ametz Jauregizar alkate andreak, plan ekonomiko-finantzarioa onartzeko dagozan arrazoiak azaldu dauz, hauxe adierazo:

2019ko aurrekontua gauzatzeko orduan gastuaren araua ez beteteagaitik 2019ko abenduaren 19ko jasangarritasun-txostena idatzia zuen idazkari-kontuhartzaileak, eta agiri horren barri Udaltzari 2020-05-28an barri emon ostean, Bizkaiko Foru Aldundiari bialdu jakon.

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren arabera, Bakioko Udalak 2012ko abenduan plan ekonomiko-finantzarioa onartu eban, udala murgilduta egoan krisi ekonomikit libratzeko urteen poderioz, izan be, plan horretan udalak 2027ra arteko hartu beharreko neurri ekonomikoak zehaztu ebazan, eta udalak plan horren arabera lau adierazle bete behar ebazan, gastuen araua, aurrekontu-egonkortasuna, hornitzaileei ordaintzeko epea eta zorraren tarte. Udalak, gaur egun, adierazle horreek danak betetzen dauz gastuen araua izan ezik.

Esan dogun modura 2012an Udalaren egoera ekonomikoa larria zan, harrezkeroko urteeton esfortzu handia eginez, egoera hori neurri handi batean zuzentzea lortu dogu, hoberantz eginaz, baina aitatutako lau adierazletatik hiru betetzen diran arren, gastu araua ez betekeran plan ekonomiko-finantzarioa onartu beharra dago.

Plan hori zuhurtasunez idatzi dogu, hau da, kontuan izan dogu ekonomiaren aldetik momentu latzak biziko doguzela, eta beraz 2020ko 6. Kapituluko ataleko inbertsinoak, momentuz, ez dira gauzatuko eta eurretarako zainpetutako zenbatekoak diruzaintzako gerakinara bideratuko doguz. Inbertsino horreek egin bai egingo doguz egoera ekonomikoak bidea emoten deuskun

momentuan, eta egin be apurka-apurka lehentasunak ipiniz. Beraz, guk, inbertsinoak egiteko hartu genduan konpromiso politikoari tinko eusten deusagu..

Jarraian, Begoña Abio zinegotziak berbea hartu eta EAJ/PNV taldearen izenean ondoko hau adierazo dau:

Alkateak esan dauan modura, horrela da, baina ñabardura batzuekaz:

2019an gastuen ratioa %12, 59ra igo dala %2,70 tasa gainditu ezin izan ebanean, eta ratio hori ez beteteak udala doikuntza plan ekonomikoa egitera behartuko dau. Eta doikuntza aurreikusita egozan inbertsinoaren pentsura egingo da, obrak eta jarduera batzuk egin barik itxiz.

Ondo ikusten dogu gastu araua beteteko hartu gura dan finantzabidea, hau da, inbertsinoen zenbatekoak diruzaintza gerakinara bideratzea, baina esan behar da EAJ taldeak 2020ko aurrekontuari baiezkoa emateko orduan zerikusia izan dau aurrekontuko 6. Kapitulua, hau da, inbertsinoen atala, herritarren partaidetzaren borondatea kontuan izanik osotu izana eta, beraz, inbertsinoak gauzatzeko egoan asmoagaitik. Baina, orain ikusten dogu doikuntza dala eta inbertsino horreek, printzipioz, ez dirala egingo, eta zainpetzeko egoan zenbatekoa diruzaintzako gerakinara bideratuko dala.

Hori dala-eta gu plan ekonomikofinantzarioari buruzko botazinoan abstenidu egingo gara, uste dogun arren plan ekonomikoa onartzea beharrezkoa dala egoera zuzentzeko. Hori bai, gure nahia da herritarren partaidetzaren bidez aukeratutako inbertsionak gauzatea ahal danean.

Sakonean beste arazo bat dago, Plan ekonomikofinantzarioak ez dau jasoten benetako arrazoia gastu araua ez betetzera bideratu dauana: Hau da, arau bete ez eze, urratu egin da, bost bider gehiago igo da legez ipinita egoan ratioa. Ondorioz ia 300.000 eurotan gainduta da gastuen araua. Horrek agerian ixten dauana da tokiko batzordearen kudeaketa txarra.

Beste aldetik, hemen aurkeztutako planak aitzaki hutsak azaltzen dauz gastu araua ez beteteko. Ezin da iraganean egindakoari leporatu hemen eta orain hartutako erabagien errua. Eta oraingo udal gobernuaren aurreikuspenik eta kontrolik eza da arrazoia.

Alkate andreak, erantzun deutso esanez:

Ikusten dot EAJ taldeak plan ekonomikofinantzarioari buruz, irakurketa politikoa egin gura izan dauala, ez txarto edo ondo dagoalako, zeozeretik diferentziatzeko baino.

Nik Bakioko herria zoriondu gura dot, gastu arauaren %2,70 ratioa gaindu daualako, horrek demostratzen daualako 2012an EAJ taldea udal gobernuan egoan sasoiari diseinatu eban ekonomia gaindu egin dogula, eta, horrek emon deuskulako bidea, gaur egun, hainbat zerbitzu eta jarduera emoteko aukera (gazte lekua ludoteka eta kiroldegia zabalik eta abar), urte horretan udalak ematen ez ebazanak. Eta halan da be, daukagun zorraren maila %19koa da, kontuan izanik, orain sei urte %124koa zala maila hori; beraz, ekonomiaren aldetik udala saneatuta dago.

Beraz, ziur asko, laster sortuko dan krisi ekonomikoari aurre egiteko egoera onean dago udala. Hau da, lau adierazletik bat ez dogu betetu (gastu araua) baina beste hirurak bai: aurrekontu-egonkortasuna, hornitzaileei ordaintzeko epea eta zorraren tartea. Gastu araua da adierazle bat kendu egin beharko litzatekena, eta horretan dabilta alderdi politikoak

Begoña Abio dino: gu be ez gagoz gastu araua indarrean egoteaz, dinoguna adierazle hori ez dala bete udal gobernuaren aldetik aurrekontuak zuzentzeko orduan kontrolik ez dalako egon. Inbertsinoak kendu egingo dira eta horren zenbatekoak diruzaintzako gerakinan sartu, baina konpromiso politikoak hor jarraitu behar dau, hau da inbertsinoak ahal danean lehenbailehen egitea.

Jarraian, EH Bildu taldeko lau zinegotzien (bertaratutako guztiak: Amets Baraiazarra, Egoitz Abio, Irati Muruaga eta Garbiñe Olealdekoa) eta Bakiobai taldea osotzen daben bi zinegotzien aldeko botoagaz, korporazinoa legez osotzen daben gehiengo osoa izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, hauxe erabagi dau:

Bakioko Udaleko 2020ko Plan ekonomiko-finantzarioa onartzea.

Plan horren onarpenaren barri Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren bidez ematea eta iragarkia bertan argitaratzen dan biharamunetik kontetan hasita, 15 egun baliodineko epea egongo da alegazinoak aurkezteko. Iragarkia herriko web orrian be ipintea.

Plan hori Bizkaiko Foru Aldundiari bialtzea

Bertaratutako EAJ-PNV taldeko lau zinegotziak abstenidu egin dira (Maria Begoña Abio, José Luis Urrutia, Guillermo Martín eta Gorka Uriarte), Maria Begoña Abio jaunak emondakoazalpenagaz bat etorritz.

7.- BAKIOKO UDALERRIAN 2021. URTEAN IZANGO DAN HERRIKO JAIA PROPOSATU.

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Sailaren 2020eko ekainaren 1eko idatziaren barri emon dau idazkariak; izan be, bertan Udalari honako hau eskatzen deutso: 2021. urtean Bakion herriko tokiko jaia zein izango dan zehazteko.

Udalaren osoko bilkurak ondoko hau erabagi dau zinegotzien aho batez (korporazinoa legez osotzen daben 11tik 10rek):

Eusko Jaurlaritzari proposamen hau egitea: Bakioko udalerrian 2021eko irailaren 29a (San Miguel eguna) tokiko jaia izatea.

8.- INGURUMENA BABESTEKO ETA GIZARTEA KONTZIENTZIATZEKO ERABAGIA HARTU.

Amets Jaurgizarrek, ingurumena babesteko eta gizartea kontzientziazteko udal bileretan berba egin dala konpormisoren bat hartzeko beharrianaz, eta, orain ona dakarguna da EAJ-PNV udal taldeak, gai horrerri buruz aurkeztu dauan idazki-proposamena udalbatzak onartu daian.

Gorka Uriarte zinegotziak, idazki-proposamen hori azaldu dau, edukia hauxe izanik:

Bakioko ingurumenarekiko eta ingurune naturalarekiko gure kezka handia adierazi nahi dugu, eta are gehiago orain, udaren etorrerarekin eta bisitari kopuru handiarekin.

Kaleetan maskarilla erabiltzea derrigorrezkoa da koronabirusaren pandemiagatik, eta erabili ondoren lurrera ez botatzea ere derrigorrezkoa da, eskularruak bezala. Horregatik, azken egunotan bakiotarren kezka areagotu egin da, lurrean maskara ugari aurkitu direlako. Hori oso kaltegarria da guztion osasunarentzat, mantendu ditzakeen birusen hondakinengatik, eta oso kaltegarria ingurumenarentzat, maskarilla gehienak lastikoz eginak baitaude, eta material honek itsasoak kontaminatu egiten ditu, aldi berean, mendeak tardatzen ditu ingurumenetik desagertzen.

Osasun arrazoiengatik, ingurumena babesteko eta gizartea kontzientziaztearren, paisaiarekin arreta eta estimu handiagoa izateko, hondoko erabaki hau planteatzen digu Udalbatzari:

- 1) **SENTSIBILIZAZIO-KANPAINA BAT ABIARAZTEA, MASKARAK ETA ESKULARRUAK BEHAR BEZALA BAZTERTZEKO**
- 2) **BAKIOKO EDOIZEIN TOKITAN MASKARA LURRERA BOTATZEN DUEN PERTSONA ORORI 500 EUROKO (EDO GEHIAGOKO) ISUNAREKIN ZIGORTZEA.**

Era berean, kale garbiketaren eta gure ingurune naturalaren zaintzaren alde, kalera atera diren hainbat elkartek egindako lan handia azpimarratu nahi dugu, eta horregatik proposatzen dugu, hemen proposatutako zigor horien bidez bildutako dirua, ingurumenaren hobekuntzarako eta klima-aldaketaren aurkako hobekuntzetara bideratzea, elkarte horien ereduari jarraituz.

Udalaren osoko bilkurak ondoko hau erabagi dau zinegotzien aho batez (korporazioa legez osotzen daben 11tik 10rek):

Ingurumena babesteko eta gizartea kontzientziazteko harira azalpen-atalean jasoten proposamena onartzea

9.- ESKAERAK ETA GALDERAK

Inork ez dau egin eskaerarik edota galderarik

Eguneko aztergaien zerrenda barruan gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoan ezkerro, ezta gai-zerrendatik kanpo be, alkate andreak batzar hau 20:05ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

